

EKAINBERRI –NARRATZAILEA

Duela 30.000 urte inguru, gizakia haitzuloetako hormetan hasi zen margotzen. Koloratzaile gisa, inguruan topatzen zituen substantziak erabiltzen zituen: ikatza, manganesoa, okrea... Eta, tonu beltzak, horiak eta gorriak lortzen zituen. Hormetako bolumenak aprobetxatuz, forma ematen zien irudiei. Gehiegi landu gabeko pintzelez egiten zituen marrak, eta irudiei kolorea emateko, berriz, pigmentua ahoan sartu, eta tu egiten zuen, sprayaren antzeko efektua lortuz.

Gaur egun, XXI. mendean, irudi horien erreprodukzioa egiteko, denbora asko eta teknologia aurreratuenen laguntza behar dugu.

EKAINBERRI

“Aterpe berri bat, labar arterako”NARRATZAILEA

Ekainberri Ekaingo haitzuloaren erreplika da. Gipuzkoako Zestoa udalerriko Sastarrain bailaran kokatuta dago, benetako haitzulotik 600 bat metrora.

Ekain 1969an aurkitu zuten, eta bi antropologo eta paleontologo adituk egiaztatu zuten bere balioa: On Jose Miguel de Barandiaranek eta Jesus Altunak.

JESUS ALTUNA (Antropologoa eta arkeologoa)

Hasteko, sarrera txundigarria izan zen, arrastaka sartu behar izan baikenuen, bizkarrez: garondoak lurra ukitzen zuen, eta sudurrak, berriz, sabaia. Aztarnategia aurkitu zuten Andoni Albizuri eta Rafael Rezabal azpeitiar gazteen atzetik sartu ginen.

Ordurako lana egiten zuten gurekin asteburuetan, aztarnategiak bilatzen. Azpeitiko lantegi bateko langileak ziren, baina historiaurrerako zaletasun handia zuten, eta asteburuetan inguruak arakatzen zituzten, aztarnategien bila. Aurkitutako haitzuloak apur bat aztertu, eta, zerbait topatuz gero, erakusten ziguten.

NARRATZAILEA

Ekaingo margoak Madeleine aldikoak dira; distira handiko aldia, kantabriar mendikatean. Beraz, 13.000 urte inguru dituzte, eta historiaurreko margolari horien hainbat alderdi ematen dituzte ezagutzera, esate baterako, beren talentu artistikoa eta beren gaitasuna zirrara sortzeko.

JESUS ALTUNA

Edertasuna sortzeko gai ziren zalantzarik gabe, eta sortu zuten. Baina aldi berean, beste kezka batzuk ere bazituztela ikus dezakegu; izan ere, leku sakon horietara sartzen ziren margotzera, eta horrek asko esaten digu atzean zuten munduari buruz. Mundu horretan sartzea, ordea, zailagoa da, eta hainbatetan esan izan dudana bezala: garezurrak fosiltzen dira, eta guk aztarnategietan aurkitzen ditugu, baina, garezur horien barruan zeuden ideiek ihes egin digute; hain sotilak izanik, fosildu gabe geratu baitira.

NARRATZAILEA

Haitzulo naturala egoera egokian mantentzeko, jendearentzat ixtea erabaki zen. Gainera, 2008. urtean, UNESCOk Gizadiaren Ondare izendatu zuen.

JESUS ALTUNA

Bisitaldiek eta turismoak kalte handia egiten diote haitzuloetako labar arteari. Guztiz frogatuta dago hori; ez da teoria bat, dotrina bat baizik.

Baina jakina, herriak ere horrelako gauzak ezagutzeko eskubidea du. Ondarearen aztarnategi handi horiek gizarte funtzio bat bete behar dute.

Nekez beteko dute funtzio hori, ordea, herritarrentzat giltzez eta iltzez itxi, eta soilik adituentzat irekitzen badira. Nola lortuko dugu hori? Bada, modu asko daude, baina jakina, onena erreplika bat egitea da.

NARRATZAILEA

Erreplika egitea erabaki ondoren, Jesus Altunak erreplika osoa eta margoen erreprodukzioa diseinatzeko enkargua eman zion Renaud Sanson frantziar eszenografoari. Frantziako Montignac hirian kokatutako ZK productions enpresako kidea da Sanson.

JESUS ALTUNA

Renaud ekarri genuen. Haitzuloa bisitatu, eta ikaragarri gustatu zitzaion. Lascaux-en lan asko egindakoa zen gizon horrek bestelako haitzulo bat ikusi zuen hemen: gizakiaren neurrira egindako haitzulo txikiago bat. Berak katedral gotiko baten —Lascaux— eta ermita erromaniko baten arteko konparazioa egiten zuen.

NARRATZAILEA

Renaud Sanson 1994an sartu zen lehenengoz Ekainen, aurkikuntza egin zenetik 25 urtera, eta historiaurreko artista horrek utzitako aztarnen lekukoa izan zen.

RENAUD SANSON (ZK Productions-eko zuzendari artistikoa)

Lehendabizi, emozio handia sentitu nuen. Ekaineko margoen kalitatea duen haitzulo batera sartzeko unea sekulakoa da. Pribilegio bat izan zen; izan ere, babestu nahian, haitzuloa itxita zegoen eta oso bisita gutxi egiten ziren.

NARRATZAILEA

Historiaurreko haitzulo baten erreprodukzioari ekiten diogun aldiro, erronka berri baten aurrean gaude, haitzulo guztiak desberdinak direlako.

Ekain are zailagoa zen, haitzuloa txikia baita eta erliebe izugarri kaotikoa baitu. Harriari dagokionez, oso zaila da. Gainera, margoak guztiz zehatzak eta finak dira; berezko nortasuna dute.

RENAUD SANSON

Ekaineko artistak, duela 12.000 urte, harkaitzaren xehetasunik txikienak erabili zituen zaldiaren ahoa, bisontearen begia, bisontearen adarra edo zaldiaren hanka egiteko. Horretan datza zailtasuna. Beraz, harkaitzaren erreproduzio globala egin beharrean, nahitaezkoa zen tolesdurez betetako harkaitz horren xehetasunak banan-banan erreproduzitzea, margoei leial izateko.

NARRATZAILEA

Hasteko, haitzuloaren bolumen guztiak erregistratu behar izan zituzten, laser teknologia erabilita. Horrela, haitzuloko horma guztiak erreproduzitu ahal izan ziren, 2 mm-ko doitasunez. Grabazio denborak ere oso laburrak izan ziren.

RENAUD SANSON

Laser bikaina erabili genuen. Leica Geosystem-ak zehaztasun izugarria du, eta, gainera, hartualdi bakarrean, 360 gradura eta hormetatik oso hurbil jarrita grabatzeko aukera ematen digu.

NARRATZAILEA

Laser bidez hartutako datu horiek guztiak digitalizatu egin ziren, poligonoen sare bat lortzeko, hau da: hormaren sare. Ondoren, lehen sare hori hobetu zen, hormaren 3Dko maketa bat egiteko, 1/1 eskalan.

Maketa digital horretatik abiatuta, hormaren moldea hainbat sekzio paralelo eta distantziakidetan gauzatu zen. Tailerrean, hormako moldearen oinarrizko unitateak izango ziren horiek.

Profilak poliestirenoko xafletan ebaki ziren, presio handiko ur zorrotadaz.

Behin ebakita, milaka piezako puzzlea lortu zuten, horma bakoitzerako. Gero, modelizazioaren profilak itzulketaren eskalara lekualdatu, eta seriean elkartu ziren. Horrela, hormaren lehen emaitza lortu zuten tailerrean.

Xaflak bastidore batean elkarretaratu ziren.

Prozesu horren ondoren, moldeatze zehatza egin zen, poliestirenoko moldearen gainean. Aldez aurretik, ordea, moldearen xaflak leundu eta luzitu ziren, horma naturalaren lazguna eta ehundura txikiak erreproduzitzeko. Tailerrean prestatutako zelulosazko mortero berezien bidez egin zen moldeatzea. Zehaztasuneko lana da, xehetasun handiz egin behar dena eta erliebearen gainean argazkiak proiektatzeko aukera ematen duena.

ZK productions enpresako tailerrean, hormaren erreprodukzioaren metro koadro bat lortzen zuten hilabeteen, gutxi gorabehera. Ekaineko panel guzti-guztiak amaituta eta modelatuta zeudenean, moldeatze prozesuari ekin zitzaion tailerrean. Mineralezko geruza izugarri mehe batez egiten zen moldea. Horixe da, hain zuzen, Ekaineko erreplikaren lorpen handia.

RENAUD SANSON

Eta, Ekainerako, tailerrak, nire tailerrak, teknologia espezifiko bat asmatu zuen, "harrizko oihala" izeneko patente teknologikoan gauzatu dena. Konpositeko orri txiki-txiki bat da, harri baten material karedunez estalita. Horrela, harrizko oihalez eginiko erreplikek argia hartzen dute. Aldiz, plastikoz edo poliesterrez eginiko erreplikek beste modu batera hartzen dute argia; ez hain ongi.

Historiaurrearen artea argi artea da. Haitzuloaren iluntasunean, argia ematean, margoek bizitza hartzen dute. Eta bizitza hori lortzekotan, erreplikak harrizkoa izan beharko du. Hori izan zen Ekaingo lan nagusia. Aldi berean harrizkoa eta arina den erreplika egin genuen.

NARRATZAILEA

Gainerako eszenografia osagarria Eibarko Alfa-Arte enpresak egin zuen. Haitzuloaren gune interesgarrienen lurrak eta hormak leialtasunez erreproduzitzeko lana hartu zuten. Era berean, girotze eta instalazio elementu guztiez arduratu ziren.

IÑAKI ACEÑA

Eszenografia osagarria esaten zaio guk egindako lanari: haize egokituaren sistema guztiak, haitzuloan zehar doan ur sistema eta Ekainberriko eszenografiaren ibilbidea egiteko pasabidea.

NARRATZAILEA

Eibarko enpresak bi teknika erabili zituen, hormen eta lurzorua panelak erreproduzitzeko. Hormetako panelei dagokienez, xaflen teknika erabili zuten, ZK productions enpresak xehetasun lanetan erabilitako berbera.

Lurzoruetako paneletarako, poliesterenoko bloke bat mekanikoki fresatuz lortu zuten negatiboa. Gero, mekanizatutako blokeak gainjarri, eta kolatu egin zituzten, eszenografia osoa eraikitzeko. Molde negatiboen azalera landu zuten, mekanizatuaren akats txikiak zuzentzeko eta xehetasun handiagoa lortzeko. Poliestirenoa eta morteroa erraz bereizi ahal izateko, desmoldatzeko produktu baten geruza bat eman zioten molde negatiboaren azalerari. Prestatutako azaleraren gainean morteroa aplikatu zuten. 48 orduz lehortzen utzi, eta behin morteroa gogortuta, katalizatze moteleko poliesterreko geruza bat eman zioten ongi barneratu dadin. Ondoren, beirazko zuntz erretxinako geruzak eman ziutzen, poliesterra sendotzeko eta indartzeko. Dimentsioak eta formak aztertu ondoren, eszenografia zatitan banatu zen, errazago manipulatzeko eta Ekainberrira garraiatzeko.

Poliesterreko erretxina gogortu ondoren, poliestirenoa eszenografiatik desmoldatzeari ekin zioten, eta prozesu horretan izandako akatsak zuzendu zituzten. Horrela, polikromia aplikatzeko prest geratu zen.

IÑAKI ACEÑA (Alfa Arteko zuzendari artistikoa)

Hainbat gramajetako agregatuak erabili genituen kuartzorekin eta silikatoekin, haitzulo itxura lortzeko. Era berean, tonu okreko pigmentu naturalak erabili genituen, Ekaingo haitzuloaren berezko kolorera hurbiltzeko.

NARRATZAILEA

Erreplikaren horma historiaurreko margolariak topatu zuena bezain sendo geratu zenean, Renaud Sanson eta bere taldea margoak eta grabatuak egiten hasi ziren. Modelatuarena bezala, hura ere lan zehatza izan zen, eta argazki proiektzioen bidez egin zuten.

Hormekin batera margoak erregistratu behar izan zituzten. Lan hori ere funtsezkoa zen, eta artelan guztiei argazkia atera behar izan zitzaienten, zehaztasun handiz.

Irudiaren kopia zehatza egiteko, lan originala denboraz eta sakontasunez aztertu behar da. Kasu honetan, Ekaingo margoen iraunkortasuna bermatzeko, Renaud Sansonek gidatutako taldeak ezin zuen denbora gehiegi pasa haitzuloaren barruan. Estereo-argazkiak eman zien konponbidea; hots, argazki bera bitan ateratzea, batetik bestera enkoadratzea apur bat desbideratuz. Bi erreproduktzio horiek argazki bikote bat osatzen dute, argi mahai batean estereoskopio batez aztertu daitekeena. Horrela, Ekaingo margoak erliebean ikusi ahal izan zituzten, tailerrean bertan.

RENAUD SANSON

Tailerrean, gure ordenagailuan edo argi mahaian, estereoskopioak edo 3Dko betaurrekoak erabilia, Ekainen baino hobe behatu eta aztertu genuen Ekain bera. Hala, Altuna irakaslearekin batera, ordura arte ikusi gabeko grabatuak aurkitu genituen, Ekaingo zenbait paneletan. Grabatu horien xehetasuna estereo-argazkiaren lan horri esker lortu genuen. Hau da, Ekaingo erreplikak, Ekainberrik, haitzulo naturala hobeto ezagutzen lagundu digu.

NARRATZAILEA

ZK productions enpresak margotutako obrak kopiatzeko modu berria asmatu zuen, Ekainerako.

Ez zituzten erreproduzitu haitzulo naturalean hartutako krokisen, marrazkien edo zirriborroen bidez, Lascaux-ko erreplikak egin zuten bezala.

Ekaingo margoen erreprodukzioa egiteko, Renaud Sansonek eta bere taldeak haitzulo naturalean ateratako argazkiak proiektatu zituzten horma artifizialean, besterik gabe. Horrela, begien aurrean zuten margo originala; horman proiektatuta. Ez zen marrazki bat imitatzeko edo kopiatzeko lana izan. Irudia kalkatu egin behar zuten, eta ez zen erraza izan.

RENAUD SANON

Informatikaren ikuspegitik hitz eginda, Ekaingo marrazki beltza marrazki berde, arrosa edo hori bihurtu genuen. Hala, zaldi beltza horman horiz proiektatzean, marrazkia beltzez bete ahala, jatorrizko trazatuaren barruan ginen ala ez ikusten genuen zehaztasun osoz. Teknika hori bikaina da, proiektatutako argazkia itzaltzean, obra originala delako aurrean ikusten duzuna. Obra originala egindako marrazkiaren gainean proiektatzean, erreprodukzioaren mirari zientifikoa geratzen da, biak berdinak baitira.

NARRATZAILEA

Irudien formaren arazoa bideratu ondoren, koloreak kopiatu behar ziren. Labar margoen kromatismoa itxuraz dirudiena baino konplexuagoa da. Adibidez, irudi berak beltzaren hamaika intentsitate eta tonu izan ditzake. Nolanahi ere, margoen erreprodukzioa egiteko pigmentuak aukeratzea askoz errazagoa izan zen.

RENAUD SANSON

Kolore horiek bilatzeko, gaur egun topa daitezkeen pigmentu mineralak erabili genituen.

Eta Ekaingo margoen koloreak errespetatzen zirela ziurtatzeko, kalibratze deritzona egin genuen: informatikari esker, gaur erraz egiaztatu dezakegu argiztatze eta kalibratze baldintza egokietan dagoen Ekaingo margo baten gorria berdin-berdina dela dagozkion dentsitate baliokideetan, gorrian, beltzean edo horian. Teknologia hori oso erraz kontrolatzen da, XX. eta XXI. mendeko teknologiaren bidez.

NARRATZAILEA

Bi eszenografiak bukatu ondoren, panelak osatzen zituzten pieza guzti-guztiak garraiatu behar izan ziren tailerretatik Ekainberrira, eta han bata bestearekin doitzeko lanari ekin zitzaion.

Eszenografiaren 3Dko artxiboetan biren arteko banaketak agertzen ziren. Hala, artxibo horien bidez doitze eredu bat egin zen, eta gero eszenografia errealarekin egiaztatu zen, elkarketa zuzen egin zela ziurtatzeko. Erkaketa hori egin ondoren, eszenografia osagarriaren ehuna eta polikromia eszenografia zehatzera doitu behar izan zuten.

IÑAKI ACEÑA

Harreman lana izan zen. Frantziara joan ginen; lana nola egiten zuten ikusi; proiektuari buruzko dokumentuak aztertu, eta itzuli ginen. Egia esanda, batera eginiko lana izan zen, gure eszenografia osagarria nolabait egokitu behar izan genuelako eszenografia zehatzera.

Gero, muntatzeko sistema zegoen. Konplexua izan zen, batetik, egitura metalikoen gainean egiten zelako, eta, bestetik, sabaia izango ziren zati batzuk zintzilik jarri behar genituelako, sabaian jarritako egitura metalikoetan. Hortaz, proiektuaren barruan, erronka handia izan zen ere muntaketaren zailtasun teknikoei aurre egitea.

NARRATZAILEA

Erreplika osoa eta, batez ere, erreproduzitutako margoak baldintza egokietan ikusi ahal izateko, Alfa Artek pasabide bat jarri zuen, 125 metroko ibilbidea egiteko. Horri esker, ibilbidea modu erosoan eta hesi arkitektonikorik gabe egin daiteke.

Margo bakoitza modu espezifikotan argiztatu zen, ahalik eta ikuspegi argiena lortzeko. Efektu hori lortzearen, Alfa Artek erreplikaren hormetan gordetako argi sistema diseinatu zuen.

TXABI BASTERRETXE (eszenografiaren argitzailea)

Jesus Altunarekin batera haitzulo errealerara sartu, eta lehenengoz panelak erakutsi zizkigunean, hunkituta geratu ginen, eta horixe izan zen, nolabait, gure abiapuntua, Ekainberrin lana egiteko.

Argiztapenaren bidez ahalegin bat egin genuen, orain arteko konbentzionalismotik urruntzeko. Izan ere, orain arte argi gorri-laranja bat erabili izan da haitzuloetan, protagonismo gehiegi izan duena, edo, nolabait esatearren, nabarmenegia izan dena.

Horren harira, guk guztiz kontrakoa zen zerbait erabili genuen. Argi zuri-urdin neutro bat, eszenografiak emandako bolumenak marrazteko aukera ematen duena eta protagonismo nagusia margo zoragarri horiek dituzten panelei ematen diena.

NARRATZAILEA

Erreplika duen eraikina Jose Maria Alberdi arkitektoaren obra da, eta bere kokalekuaren konfigurazio topografikoak haitzulo originala ekartzen digu gogora. Erreplika bere baitan hartzeko sortutako gunek arkitektoniko hori inguruan txertatzeko eta ingurua errespetatzeko diseinatu zen. Bailararen zati bat da, non natura eta arkitektura batzen diren. Bere barruan proiektuaren arima gordetzen da: *“Ekaineko haitzuloaren eszenografia”*.

Ekainberriko bisita iraupen eta intentsitate desberdineko bi ibilbidetan egiten da. Bi une horien artean, etenaldi didaktiko bat dago, non ikus-entzunezko bat proiektatzen den, arte paleolitikoa eta Ekaingo haitzuloa ezagutzeko.

Lehen bisitan, emozioa da nagusi. Bigarren itzuliak, berriz, balia handiagoa du haitzuloa ezagutzeko.

JESUS ALTUNA

Bere ekarpenak harremana izan beharko luke. Harremana iraganeko gizadiarekin, oso urrunetik datozen gizakiekin eta oso aspaldikoa den gure lurraldearen garai distiratsu batekin. Ez da nahikoa horri begira geratzea, bere zilberrari begiratzen dionaren moduan.

Pentsatu behar dugu iragan hori lagungarri izango zaigula gure etorkizuna eraikitzeko. Horixe atera behar dugu hemendik. Eta, jakina, batez ere, gizaki horien sorkuntzaren emozio artistikoa eta estetikoa sentitu behar dugu.

JUANJO ARANBURU (Arazi IKT)

Bisitan etorritako artista askok azpimarratu dute artea ezer gutxi aurreratu dela azken 14.000 urteetan; izan ere, Ekaingo hormetan utzitako artearen adierazteko gaitasuna sublimea da... Eta hala denez, bisitari bakoitza errealitate horretaz jabetzen da, eta norberak errealitate hori esperientzia pertsonal gisa hartzen du. Ez dago esperientzia guztientzako balio duen joera komun bat.

NARRATZAILEA

Erreplika 2008. urteko azaroaren 11n ireki zen, eta, orduz geroztik, milaka bisitari hartu ditu.

Ekainberri ez da ohiko museo bat. Produktu berezi bat erakusten du, ikusle edo bisitari bakoitzari bizipen propio eta bakana eskaintzen diona.

Horrez gain, gaur egun haitzulo baten erreplika egiteak zer zailtasun dituen ikusteko adibide onenetako bat da Ekainberri.

Ekainberri erreplika bat da, eta Ekaingo labar margoen balio arkeologikoaz jabetzeko aukera eskaintzen dio bisitariari. Ibilbidean zehar, zerbait gehiago ikasiko dugu duela 12.000 urteko geure arbasoen, hau da, Cro-Magnon gizaki horren bizimoduari buruz.